

# Hitzaurrea



zken urte honetan Galtzagorriren barruan mamitutako proiektu baten ondorioa da eskuartean daukazu *Behinola* honen lehenengo zenbakia. Gure helburua Haur eta Gazte Literaturari falta zitzaion bultzada ematea da: bultzada kritikoa. Askotan irakurri duzu, han eta hemen, euskal HGL oso osasuntsu bizi dela, batere gaitzik gabe, argitaratzen diren jatorrizko obrak ugari direla, eta itzulpenak are ugariagoak. Eta baliteke zu bezalako asko, irakasle, bibliotekari, guraso edo literaturzale dela, ugaritasun horretan galduta sentitzea, iparrorratzik gabe. Hain zuzen ere, mundu konplexu hori nolabait ulertzen laguntzera dator *Behinola*.

Lehen ale honetan bildutako edukien artean, gutxitan nabarmentzen den alderdia aipatu nahi nizuke lehenbizi: aldizkarian zehar dituzun Jokin Mitxelenaren marrazki paregabeak. Eduki idatziekin hasirik, Galtzagorrikide diren pertsona eta elkarte batzuek eman nahi izan diguten ongi etorria daukazu («Hitzordu»), aurrerantzean Galtzagorri osatzen duten lanbide guztien iritziak jasotzeko erabiliko dena. Ondoren, Xabier Etxanizek Teresa Colomer aditu kataluniarrari egindako elkarrizketa («Hitz eta Pitz») mamitsu eta argigarria dator (dakizunez, Colomeren *La formación del lector literario* ezinbesteko erreferentzi gune bilakatu da oso denbora gutxian). *Behinola* bezalako aldizkari batean ezin tokirik gabe utzi literatura sorkuntzari («Hitzontzi»): horra Juan Kruz Igerabide aurtengo Euskadi sari-dunak gogo onez bidalitako poema zoragarriak. Serio jartzen hasiz gero, hurrengo atala («Hizpide») monografiko bat duzu, hain zuzen ere joan den abenduan Cace-



Jokin Mitxelena

## Hitzaurrea

reseo Literatura Biltzarrean euskal txostenemaileek aurkeztutako hitzaldiak: Edurne Uriarenak garrantzi berezia dauka, HGLko alderdirik ahaztuenaz mintzatzen baita, euskal ilustraziogintzaz, hain justu. Bestean, Xabier Etxaniz irakasleak euskal HGLren historiaren ikuspegi originala eskaintzen digu, zenbait emakumeren ahotsean. Liburu erreseinak datoz ondoren («Hitz Beste»), berriak batzuk eta berreskuratuak beste batzuk. Kritika horiek irakurle berezitu batzuen iritziak dira, eta ez jainkoaren hitz; alde horretatik oso osasungarria da norberaren iritzi propioekin alderatuz nahi dituzun ondorioak ateratzea. Azkenik, hausnarketarako atal batek («Hitzatzea») ixten du ale hau, oraingoan Seve Callejak klasikoaren balioaz egindakoa.

*Behinola* aldizkariak independentea eta zabala izan nahi du, zure keka eta gogoeta guztien leiho. Alde horretatik, plaza izateko gogoarekin jaio da: hemendik bertatik, nahi duzuna idatzi eta bidaltzeko gonbitea doakizu, *Behinola* guztion artean egin eta hobetu dezagun.

Topikoak dioenez, aldizkari bat ez da ezer irakurlerik gabe; gure asmoa ahalik eta irakurle gehienengana iristea da. Hortaz, kasualitatez *Behinolaren* berri izan, baina jaso ez baduzu, eskaiguzu arazorik gabe.

Nire aldetik besterik ez. Udaberri aldera berriz elkar ikusiko dugulakoan, adiorik ez.

M. L. G.



Jokin Mitxelena